

Koldo Ormaetxea eibartarra joan zaigu

Argentinako Castelar-en, 73 urte betetzeke* hil da Luis Ormaetxea Arrate, eibartar jatorra. Tekniko industrialia eta aparejadorea, ogibidez; gudurarte Eibarko Armeri Eskolaren zuzendari ordezkoa izana, eta geroztik Argentinan bizi zena.

Abertzale zintzoa eta euskaltzale sutsua. Argentinako puntan sortu zitzaizkion seme-alabak ere, euskaraz hazi eta hezi zituen gizona.

Noizbehinka euskaraz idazten zuen, gehienetan «Isasi» izenordepean, Argentina eta Mexikoko «Tierra Vasca»n eta Buenos Airesko «Euzko-Deya»n; eta inoiz ANAITASUNA honetan ere argitaratu zituen bere artikuluak.

Azken urteotan euskaraz argitaratzen zirèn libururik gehienak irakurri zituen; eta idazle berrien eragina ere gogo onez ikusten zuen eta jarraitzen. Adinekoa zenez, H letra ez zitzaion hain gogoko; baina ez zuen uxatuko. Eibartar jator bezala, oso gizon pragmatikoa zen, ekin-tzazalea. Alferrrikako eztabaidetan denbora galtzerik gus-tatzen ez zitzaiona. Praktikasuna non, bera han. Alde batetik, honexegatik ez zuen H-rik gogoko: bere ustez, praktikoa ez zelako.

Azken urte hoietan, bizpahiru aldiz hemen izana zen. Gure euskeraren galeragatik asko sufritzen zuen. Herri herri egin zituen ibileretatik, samina eta oinazea bes-terik ez zuen jaso. Itxaropen izpi bat ikusten zuen euskaltzale gazteen artean. Bere ustez, inoiz ez ziren izan gazterian hain euskaltzale kartsurik. Bere Eibarren aurkitzen zuen onenarikoa ere, hori zen: gazteen artean hainbeste euskaltzale eta euskal idazle izatea. Gainera, hauetako bat, bere emaztearen lehengusu den «Amatiño» gazi-geza.

Bere adiskiderik bihotzekoena Edorta Alberdi zuen, eta Toribio Etxebarria ere bai; neurri handi batean bera izan zen, Toribio euskarazko lanetara bultzatu eta animatu zuena. Nik Toribio eta Edortaren bidez hartu nuen, aspaldi dela, berarekiko harremana; eta ez naiz damutzen adiskidetasun honetaz, orain doluminaren parte bat badaramat ere. Aurtengo otsaileko* gutunean* hara zer esaten zidan: «ANAITASUNAn 'Euskaldungoa' idazten dabenakin* ez nagok konforme, ba beti burruka billa agertzen dok, arrazoi guztia berak bakarrik baleuka lez.* Danok batu egin behar gaituk, ez aldendu. Euskeraren alde lan egiten diarduen* guztiak goraltzekoak dituk nerretzat».

Hor azaltzen du bere gogo eta izatearen zati bat. Ideia diferenteak errespetatzen zituen eta dogmakeriak uxatzen, nahiz ezker nahiz eskuin. Eibarren ere ematen dira eibartasunik gabeak, demokrata zentzurik gabeak; baina Koldo Ormaetxea ez zen gutxi hoietakoa, baizik pentsamen zabalekoa, diferente pentsatzen zutenei ere leku egitekoa. Euskararen bizitzak eta euskal literatura-ren indartzeak gehien kezkatzen zuen.

Baina bere adiskiderik handiena eta laguntzailerik hurbilena,* bere emazte Maritxu zuen, euskararen, aberri minetan eta bizitzako poz eta larritasun guztietan lagundu diona.

Eibartarrantzat ezezik,* Euskal Herriarentzat ere gizon zintzo bat galdu da, eta pertsonalki ezagutzera heldu ginenontzat adiskide on bat.

Bego, bere fede sendoak espero zuen egun handian.

JUAN SAN MARTIN

daramat, daroat
dio, deutso
zaigu, jaku
zidan, eustan
zitzaion, jakon
zitzaizkion, jakozan



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako jantzi aukeratuenak, azken modara eginak

HURI ZAHARRA

"Casco Viejo"

BILBO

OPORRALDIAK

Tren, untxi eta hegazkin txartelak

Ezkonberri bidaiak
Arazo bidaiak
Xofer gabeko automobil alokatuak

**VIAJES
ECUADOR**

«BILBOKO BIDAI AGENTZIA»

Arriagakop Plazan, 1 — Tel. 242468

... Zuen zerbitzutan

(G. A. T. n.º 68)